


azpeitianzer?

udal aldizkaria

145. zenbakia
2012ko otsaila



Denon artean auzolanera

*Azpeitia inauterietan murgilduko
da otsailaren 11tik 22ra*

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Energia
- 5 Eraikitzen
- 6 Elkarriketa
- 8 Denon artean
- 10 Motxean
- 12 Agenda
- 15 Inauteriak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - I 148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Alkatetza	943 15 71 85	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Idazkaritza	943 15 71 98	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Hirigintza	943 15 71 91	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Kultura	943 15 70 68	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea	
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Museoa	943 81 24 48

botikatzandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Otsailak 2, 9, 21 eta 27.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Otsailak 7, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19 eta 24.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Otsailak 1, 4, 5, 8, 20, 25 eta 26.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Otsailak 10 eta 22.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Otsailak 3, 6, 11, 12, 23, 28 eta 29.

Udal zerbitzuak

Ezinduentzat aparkalekuak



Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburua du. Behar gehien dutenen artean, ezinduak agertzen dira eta hauei zuzendutako aparkalekuen erabilera desegokiaren aurrean, aparkamendu-txartelaren funtzionamendua arautu du Udalak. Hone-la, txartelak berritu dira eta hauek jasotzeko epea hilabete atzeratu da, martxora arte. Apirilaren 1etik aurrera txartel berria erabiltzea derrigorrezkoa izango dute Azpeitiko 350 erabiltzaileek.

Hurrengo hiletik aurrera indarrean egongo den legediak alderdi eta berrikuntza nabarmenak izango ditu:

1. Txartela pertsonala da, ezintasuna duen pertsona izango da haren titularra, eta titularrak, gidari gisa edo bidaia gisa erabili ahal izango du.
2. Aparkaleku-txartela, jatorrizko dokumentua betiere, ibilgailuaren aurreko kristalean jarriko da. Inolaz ere ezin izango dira aparkaleku-txartelen kopiak erabili.
3. Horretarako egokituriko lekuetan aparkatzeko balioko du, eta baita aparkatzea debekatua dagoen lekuetan ere, behar duten denborarako. Salbuespen bezala, gidaria elbarritua bera denean, 3 egunez aparkatzeko aukera egongo da. Horretarako, txartel berezia eskatu beharko da udaletxean.
4. Ez dute baliorik izango oinarrizko daturen bat irakurri ezindako txartelek.
5. Elbarrientzako aparkaleku-plazak gorde egingo dira.

Zalantzak argitzeko, 943157192 telefono zenbakira deitu daiteke.

Udal erabakiak

Urtarrilaren 24ean egindako Udalbatza Osoak honako erabaki hauek hartu zituen:

- 1.- 2012ko urtarrilaren 3an egindako bilkuraren akta onartzea.
- 2.- KUTXAren Gobernu-organoak izendatzeko prozeduran Azpeitiko Udalaren ordezkaritza: udalen arteko taldekatzeko akordioa.
- 3.- Azpeitiko zona ez urbanizagarrian jabetza horizontalaren zatiketarako irizpide orokorra
- 4.- Alkatetzak 2012ko urtarrilaren 2an emandako ebazpena, 2012. ekitaldirako aurrekontu prorrogatua onartuz.
- 5.- Galdera eta erreguak.



Beira birziklatzeko tailerra Azpeitiko plazan.

Helburua, energian aurreztea

Energiaren inpaktu ekonomikoaren azterketa egiteko 20 familia boluntario aurkeztu dira

Ingurugiro Etxea Fundazioak eta Loio-la Berrikuntza Fundazioak, Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako udalen laguntzarekin, bailarako energiaren inpaktu ekonomikoaren azterketa jarri dute abian. "Energia adimentsua" proiektuaren bidez, epe luzerako plangintza batekin energia subiranotasunerantz bidea egiten hasi nahi da, bailarako ekonomia suspertzeko garapen teknologikoa egin eta berrikuntza landuz.

Energi aurrezteko aholkuak:

1. 21° ko tenperatura bat nahikoa da etxe baten eroso sentitzeko. Nahiz eta erosotasun sententzia subjektiboa izan, gehiengoarentzat 19 eta 21°C arteko tenperatura bat nahikoa izaten da. Gauez, 15 eta 17°C arteko tenperaturarekin gustura sentitzen da gehiengoa

2. Itzali berogailua lotara joandakoan. Banakako berogailu sistema lotara joan baino ordubete lehenago itzali, hormetan metatutako beroa aprobetxatzeko.

"Epe luzerako plangintza baten bidez energia subiranotasunerantz bidea egin nahi da"

3. Itxaron etxea aireztatu eta leihoak itxi arte berogailua piztu aurretik. Etxea aireztatzeko nahikoa da leihoak 10 minutuz irekita edukitzea.

4. jar ezazu zure termostatoa 15°Ctan (ekonomia posizioa).

5. Erradiadoreak estalita edukitzeak edo hauen ondoan objekturen bat jartzeak aire beroaren difusio egokia zailtzen du.

Horretarako, Urola Erdiko familien eta enpresen laguntza eskatu da. Dagoeneko, 20 familia boluntario animatu dira eta arduradunak "gustura" agertu diren arren orain arteko emaitzarekin, "gehiago behar dira, ea 400 lortzen ditugun", adierazi dute. Enpresen kasuan, Ingurugiro Etxea Fundazioa arduratuko da banan-banan proiektua azaltzeaz eta partaidetza eskatzeaz.

6. Gortinak eta pertsianak itxiz bero galera garrantzitsuak ekidingo dituzu.

7. Gure berogailu beharren %25-30 artean, leihoetatik ihes egindako bero galerek eragindakoak dira. Kristal bikoitzeko sistemek erdira murrizten dituzte bero galera hauek, kristal sinpleko leihoekin konparatuz.

8. Erabili itzazu kontsumo baxuko bonbillak.




PEREZ ARREGI PLAZAKO NORABIDEA ALDATZEN HASI DA UDALA

Lanak martxoaren amaierako bukatuta egongo direla aurreikusten dute arduradunek

Perez Arregi plazan autoentzako norabidea aldatzeko lanak hasi ditu Udalak. Modu honetan, plaza ondoan dagoen zubia bi noranzkotakoa izango dela aurreratu dute arduradunek. Lanak urtarrian hasi ziren eta martxoaren amaierako bukatuta egotea aurreikusten da. Behin obrak amaitutakoan, aldaketak eta ondorioak nabarmenak izango dira Perez Arregi plazaren inguruan:

- Julian Elorzatik Soreasura zuzenean joan ahal izango da.
- Autoek Soreasutik Perez Arregi plaza aldera ezingo dute joan.
- Enparan kaletik Perez Arregira iritsitakoan, plaza ondoko zubira, Soreasura edota Eliz kalera joan ahal izango da.
- Zubian ezingo da aparkatu, aldiz, Perez Arregi plaza aurrean lerroan aparkatu ahalko da.
- Aparkalekuen eta ibaiaren artean dagoen gunea txukundu da.
- Ezinduentzat bi aparkaleku egokituko dira.

Lanen aurrekontua 80.000 euro ingurukoa da.



Lanak bukatutakoan irudian adierazi bezala bideratuko da trafikoa.

elkarriketa

“Azpeitiko Udalak krisiari aurre egiteko hainbat ataletan lan ildoak bultzatuko ditu”

Iñaki Portilla,

Industria, Merkataritza, Turismoa
eta Baserriak batzordeburua



Ez dira garai onenak industriarentzat, eta oro har, ekonomiarentzat baina Azpeitiko Udalak esfortzu berezia egingo du hurrengo urteetan herriko merkataritza, turismoa eta industria sustatzeko. Era berean, langabezian daudenentzat laguntzak izango direla adierazi du. Asmo eta proiektu hauen berri eman du Iñaki Portilla zinegotziak.

Egungo egoera bortizki eragiten ari da azpeitiarren artean, lanik gabe gelditzen ari direnen artean batik bat. Zein bitarteko ditu Udalak pertsona hauei laguntzeko?

Egia da gaur pairatzen ari garen krisia oso bortitza eta larria dela eta Udalaren eskumenak mugatuta daudela. Baina Udalak hiru arlotatik laguntzen die langabetuei: lehenik, beharrezko diren zerbitzu publiko duinak ematen. Bigarren, gizarte zerbitzuetatik egoera larrietan daudenei zuzenean laguntzen. Eta azkenik, ekonomia arlotik, langabetuen lana bilatzeko ekimenak abian jarriaz eta, orokorrean, ekonomia sustatuaz lanpostuak sortuaz.

Krisia luzatzen ari da. Zer egin dezake Udalak?

Lehenengoa eta garrantzitsua etorkizunerako estrategia izatea da.

Berriki Udalaren estrategiaz mintzatzeko aukera izan dugu herritar ugarirekin. Udalak krisiari aurre egiteko hainbat ataletan lan ildoak bultzatuko ditu. Ekonomi arloari zuzenean dagokionez, industria bultzatuko du eta, egoera zaila bada ere, besteak beste, lur industrialak garatzea eskatuko dio SPILURi, sektore estrategikoak erakartzen saiatuko da, teknologia berriak eta zentro teknologikoak ekartzen, enpresetan berrikuntza taldeak, turismoa garatzen, merkataritza, baserrigintza, hezkuntza profesionala egoera berrietara moldatzen, energia berriak, goi mailako hezkuntza erakartzen, eskualdeko ikuspuntu amankomuna lantzen...

Eta zer pisu izango du etorkizun horretan Corrugados enpresaren egoerak?

Corrugados Azpeitiarentzat enpresa bat

baino gehiago da. Historikoki horrela izan da. Alde batetik, langileen egoera dago eta benetan gogorra da. Hor kokatu behar ditugu: garraiolariak, bertarako ari diren enpresa txikiko langileak, Pasaiaiko portuko langileak... Eta bestetik, Corrugados lanpostuak baino gehiago da, Corrugados herri baten ekonomia da. Eta Corrugadosen gertatzen denak Azpeitiko ekonomia kinka larrian jartzen du. Horregatik, etorkizunean Corrugados gain beste sektore estrategikoetan oinarritu behar dugu.

Azpeitiko industria egurrean oinarritu da gehien bat. Nola ikusten duzu sektorea?

Azpeitiko ekonomian egurrak eta altzarigintzak pisu handia du. Eta sektore hau, Corrugadosekin batera, eraikuntzari lotutako sektoreak dira eta estatu mailakoak. Bide berriak eta



merkatu berriak bilatu behar dira, internazionalizazio eta dibertsifikazio bitartez.

Azken urteetan enpresak beste herrietara joan dira. Zer egin behar duzue lantegi hauek edota berriak Azpeitia ekartzeko? Industrialde berriak egiteko asmorik ba al dago?

SPRILURekin Larrin egitea proiektatuta zegoen. Eta bitartean logika osoa du enpresak Azpeititik joatea lurrik eta lur publikorik ez dugulako. Hasieratik beraiekin harremanetan jarri ginen, eta SPRIko ordezkariak adierazi digute Larrin aldean ez dela puska batean ezer eraikiko eskaintza nahikoa dagoelako Azkoitiko Oinartxo Industrialdean. Hau oso tristea da, baina egia. Hala ere, egoera honi buelta ematen saiatzen ari gara, baina tamalez ez dago gure esku. Bitartean, dauden lur industrialak martxan jartzea sustatuko dugu eta lantegi zaharrak berrabiltzea.

Merkataritza sustatzea ere helburutzat du Udal Gobernuak. Ze aurreikusten duzue arlo horretan?

Hainbat aldiz bildu gara dagoeneko

merkatariekin, azkena, Denon Artean kanpainaren baitan izandako bileran, urtarrilaren 16an. Bileran Azpeitiko merkataritzaren inguruan ditugun helburuak garbi adierazi genituen; merkataritza berpiztu eta berritu, herritarrak bertan kontsumitzera bultzatu, gertutasuna eta espezializazio bultzatu, komertzio txikien arteko elkarlana sustatu, turismoa bereziki landu eta Alde Zaharra biziberritu. Horretarako ekintza zehatzak planteatzeko ditugu, besteak beste, bertako produktuen ekoizpenaren alde egin, erosketara joera berrietara egokitu, azpiegiturak egokiak izan, kultura ekitaldiak antolatu, laguntzak bilatu, azterketa egin...


Ekonomia suspertzeko beste baliabidea turismoa izan daiteke?

Noski. Azpeitiak duen hoberena bere herritarrak dira. Euskal Herria ezagutzeko Azpeititik pasatu behar da, herri dinamiko eta bizia baita. Horrez gain, dugun patrimonioa ikaragarria da: leku pribilegiatu batean bizi gara, Izarraitz, bidegorriak, natura, giroa, jatetxeak... eta dugun ondare kulturalak ez du bukaerarik: Loiola, Madalena, Parrokia Bakardadearen

kaperarekin, Antxieta, Enparan, Basozabal, Sindikatu Zaharra, Udala, San Agustin, Done Jakue kaleko iturriak eta garbitokia, Trenaren museoa, Ingurugiro Museoa, Garate anaiaren etxea, Arrupe ... eta ziur zerbait ahazten dudala. Guzti hau derrigorrez gehiago esplotatu behar da eta horretan ari gara.

Orain gutxi Madrileko FITUR azokan izan zarete. Azpeitiko baliabide turistikoak ezagutaraztera emateko eta harreman berriak egiteko aukera izan duzue. Nola baloratuko zenuke?

FITURen lana egin dugu, gure herriaren balioa saldu diogu turismo merkatuari. Merkatu horretan Azpeitia kokatuz. Eta merkatua oso garrantzitsua da. Azoka honek bere inguruan biltzen duen jendea izugarria da. Mundu guztiko guneak daude eta benetan konturatzen zara turismoa eragin ekonomiko handia dela. Eta aldi berean, gure antzeko lurraldeak, adibidez Kantabria edo Asturiaskoek beren turismoa nola kudeatzen duten ezagutzeko aukera izan dugu; ideia eta egitasmoak ezagutuz eta gure herrian ezartzerik izango genukeen aztertuz.



Auzolanean Urola ibaia garbitzeko bildu ziren herritarrak lana amaitu ondoren.

Azken txanpara iritsi da Denon Artean

Bilerak amaitu ditu Udal Gobernuak eta orain proposamenak aurrekontuetan txertatzea aztertzen ari da



Etorkinen, euskararen eta Pablo VI, Jose de Artetxe eta Harzubia auzoen bileretako irudiak.

bi hilabete ondoren, Udal Gobernuak amaitu ditu aurrekontu parte-hartzaileak aurkezteko bilerak. Guztira, 26 bilera izan dira, alde batetik auzoekin eta bestetik, talde eta eragileekin. Azpeitiko udaletxeko arduradunak oso gustura agertu dira azpeitiarren izandako erantzunarekin, izan ere, 750 herritar ingururekin bildu dira eta 400 proposamen inguru jaso dituzte.

Hurrengo pausoa bilera guztietan jasotako iritzia eta proposamenak biltzea

eta 2012 urteko aurrekontuetan zeintzuk txertatu daitezkeen erabakitzea izango da. Horretarako egun batzuk hartuko dituzte ordezkariak eta amaitutakoan, batzar orokorrera deituko ditu herritarrak azken erabakiaren berri emateko.

“Udal Gobernuak argi adierazi du herritarren partaidetza oinarritzkoa izango duela bere lanean”

Udal Gobernuak argi adierazi du herritarren partaidetza oinarritzkoa izango duela bere lanean eta horregatik, berebiziko garrantzia eman nahi izan dio Denon Artean kanpainari. Era berean, herritarren elkarlana lortzeko hainbat baliabide eta tresna eskainiko ditu, besteak beste, laster agertuko du jendaurrean azpeitiarren parte-hartzea arautuko duen ordenantza berria. Aitzindaria izango den legediaren zirriborroa bukatzen ari da Udala eta behin amaitutakoan, herritarrei erakutsiko zaie euren ekarpenak egin ditzaten.

Auzolaneko garbiketa

70 herritar inguru bildu ziren urtarilaren 28an Urola ibaia elkarlanean garbitzeko

denon Artean kanpainaren aurkezpena egin zenean abenduaren 14ean, herritar batek ibai garbiketa auzolanean egiteko proposamena luzatu zuen. Esan eta egin. Udalari ideia interesgarria iruditu zitzaion eta abian jarri zen boluntario bila.

Lagun Onak Mendi Bazkuna, Ollagorria Ehiza eta Arrantza elkarteak, Gaztetxea, Baigera, XJ Auzolanean, Bilgune Feminista, Emakume Mahaia ta Zero Zabor eta beste hainbat norbanako biltzea lor-

tu zen eta honela, urtarilaren 28an 70 herritar inguru animatu ziren Urola ibaia garbitzera. 8:30etik 12:30era bitartean Lasaoetik Loiolarako guneko osoa garbitu zen eta bildutako hondakinak, plazan jarri ziren erakusgai. Kamioien gurpilak, telebistako mandoak, aulkiak... askotariko objektuz beteriko hiru edukiontzi izan ziren arratsaldera bitartean. Udal ordezkariak oso gustura daude azpeitiarrek izandako erantzunarekin eta "horrelako ekimen gehiago izango direla" aurreratu dute.



esanak



Ainara Larrañaga

XJ Auzolanean

“Auzolanean herrian hainbat pauso egin daitezke, hau egin dugu, eta espero hainbaten lehenengoa besterik ez dela izango!”




Luis Juaristi

Herritarra

“Kontzientzia soziala indartu behar dugu eta horrelako ekintzak asko laguntzen dute, urtean behin edo bitan egin beharrekoa da”

Imanol Elias omendu du Udalak



San Sebastian bezperan omenaldi berezia eskaini zion Azpeitiko Udalak Imanol Eliasi. Urte luzez herriaren alde lan egin du Eliasek hainbat alorretan eta lan guztia aitortzeko ekitaldia antolatu zuen festaren baitan. Izan ere, Eneko Etxeberria alkateak eta Martin Garitano Ahaldun Nagusiak ikurriña igo zuten, 1977ko San Sebastian bezperan Azpeitiko Udalak egin bezala. Orduan, ikurriña legeztatzeke zegoen baina Imanol Elias Udal hartako zinegotzia zen, eta berak irakurri zuen udaletxeke balkoitik ikurriñaren testua. Jarraian, Etxeberriak eta Garitanok aginte makila eman zioten Eliasen emazte den Itziar Oiarzabali.

Ezkutuko lana aitortuz



Isilpeko lan asko egiten duten herritar ugari daude Azpeitian. Horietako bi dira Maria Jesus Garmendia eta Itziar Oiarzabal azpeitiarrak. Bi emakumeek 20 urte baino gehiago daramatzate Erregeen Kabalgataren prestakuntzan eta antolaketan lanean eta ezkutuko lan hori eskertu eta aitortzeko, Azpeitiko Udalak omenaldi berezia eskaini zien San Sebastian eguneko Haurren Danborradaren baitan. Danborrada plazan bildu zenean, bi emakumeak balkoi-ara atera ziren eta lora sorta eta oroigarri bana jaso zuten Mikel Ibarzabal Festa batzordeburuaren eta Eneko Etxeberria alkatearen eskutik.

Berrikuntzaren lan-taldea osatuta



ezagutza Guneako kide diren enpresetako berrikuntza arduradunek eta Mondragon Unibertsitateko eta CIC nanoGUNE-ko ordezkariak lan taldea osatu dute. Urtarrilaren 26an egindako bileran berrikuntza oinarri izango duen taldea osatzea adostu zen eta helburu bezala, I+G+b-ko lan talde berri baten sorrera zehaztea izango da, lanerako filosofia nahiz funtzionamendu jarraibideak elkarrekin adostuz. Elkarrekin lanean hasteko aukera eman dezaketen gaien artean, Zaintza Teknologikoa, berrikuntzaren kudeaketa sistematikoa edota eragile teknologikoen eskaintzaren ezagupena bezalakoak identifikatu ziren.

I.165 odol ateraldi



2011 urtea amaitu ostean, Azpeitiko Odolemaileen Elkarteak urteko balantzea egin du eta oso gustura agertu dira emaitzekin. Urteko odol ateraldiak I.165 izan dira eta 59 pertsona berri gehiago animatu dira odola ematera. Urte oparoa izan bada, azpeitiarren erantzunagatik izan dela diote arduradunek eta horregatik, eskerrak eman dizkiote odol-emaileei, Azpeitiko Udalari eta laguntzaileei: "Gure eginbeharra da, baina hala ere, eskerrik asko bihotzez eman nahi diegu denei eta herriko gazteak animatu nahi ditugu batik bat, beraien zain gaude", agertu dute elkarteko ordezkariak.

agenda

OTSAILA

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29				



8, asteazkena

**AZPEITIA ZERO ZABOR
DINAMIKAREN HITZALDIA**
“Hondakinen kudeaketa: Azpeitia
eta Gipuzkoako egoera”
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 19:00

11, larunbata

**LAGUN ONAK MENDI
BAZKUNAREN IRTEERA**
• Azpeitia-Aldaba Txiki ibilaldia

KALDEREROAK
Kaldereroen konpartsa 19:30ean
aterako da Arana kaletik

KONTZERTUA
Mendetz taldearen emanaldia
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 23:00

12, igandea

KONTZERTUA eta ERAKUSKETA
Musika bandak kontzertua emango du
eta Argazki Elkarteak inauterietako ar-
gazkiak erakutsiko ditu
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 12:30

13, astelehena

**AZPEITIA ZERO ZABOR
DINAMIKAREN HITZALDIA**
“Zero Zabor: Hondakinek badute
irtenbidea”
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 19:00

14, asteartea

**KALITATE TURISTIKOAREN
ZIURTAGIRI BANAKETA**
Iraurgi Lantzenen eskutik
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 19:00

16, osteguna

Ostegun gizeneko AFARIA
Lekua: Sanagustin kulturgunea

17, ostirala



EUSKAL INAUTERIEN JAIALDIA
Azpeitiko Ikastola Ikasberrik antolatuta
Ordua: 18:30

18, larunbata

**ESKUZKO PILOTA, ERREMONTEA,
eta ZESTA PUNTA**
Tokia: Izarraitz frontoia
Ordua: 22:00etan

MUSIKA BANDAREN ESKUTIK
“Berbena dantzaldia”
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 22:30

19, igandea

**IGANDE INAUTERIA
ELEGANTEEN PASIERA**

20, astelehena

ASTELEHEN INAUTERIA
Eguerdian haurren desfilea izango da
eta gauean, berriz, helduena

21, asteartea

ASTEARTE INAUTERIA

23, osteguna

ZINE FORUMA
“LE HAVRE”
Lekua: Soreasu antzokian
Ordua: 21:30

25, larunbata

SOREASU ANTZOKIA
19:30: Helduen emanaldia
22:00: Helduen emanaldia

LAGUN ONAK MB
Gaztetxoekin eski-fondoa

26, igandea

TXIKI BIRAN
Lekua: Sanjuandegin
Ordua: 12:00

LAGUN ONAK MB
Gaztetxoekin eski-fondoa

SOREASU ANTZOKIA
16:30: Haurren emanaldia
19:30: Helduen emanaldia

ALURR DANTZA TALDEAREN
“OINAZE” IKUSKIZUNA
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 19:00

27, astelehena

SOREASU ANTZOKIA
21:30: Helduen emanaldia

29, asteazkena

“LUCIO” DOKUMENTALA
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 21:30



Inauterietako egitarau osoa 15. orrian duzue eskura

AZPEITIKO INAUTERIAK 2012



Festarik umoretsuenen txanda iritsi da

Hungariako Kaldereroek otsailaren 11n iragarriko dituzte aurtengo inauteriak

Imajinazioa, koloreak, festa, umorea, barreak... Inauteriak ate-joka ditugu. Otsailaren 11ean hasi eta 22ra bitartean, ekintzaz beteriko festa giroa izango dugu Azpeitian eta ohitura ez galtzeko, Hungariako Kaldereroen konpartsak iragarriko ditu aurtengo inauteriak. Kalejira 19:30ean hasiko da Arana kaletik eta Udalak herritarrak bertan parte hartzera animatu nahi ditu.

“Azpeitiarren partaidetza beharrezkoa da festa hau aurrera joateko, izan ere, arriskuan dagoen eguna da Kaldereroena. Egun berezia eta garrantzitsua da, inauterien iragarle direlako eta horregatik, egun hau bultzatzeko formula berriak aztertuko ditugu”, agertu du Festa batzordeburu den Mikel Ibarzabalek.

Mozorroak armairutik atera beharko dira otsailaren 20ean. Goizez, haur eta gazteak izango dira protagonista eta aurten, San

**“Haurren Danborradako
karroza ikusteko aukera
izango da berriro astelehen
inauterian ”**

Sebastian jaietako karrozak ere izango du tartearen desfilean. Udal ordezkariak agertu dutenez, Danborradan eguraldi txarra zela-eta, herritarrek karroza ondo ikusteko aukera ez zuten izan eta horregatik, beste aukera bat ematea pentsatu da; “Ea oraingoan eguraldiak laguntzen duen eta gogoz gelditu zen jendeak egindako lana hobeto ikus dezaketen. Gainera, karroza eramaten dutenak elegantez jantzita joango dira”, esan du Ibarzabalek.

Gauean helduak aterako dira mozorrotuta kalera. Txaranga desberdinak gau eta goizalde osoa musikaz girotuko dute eta Udal ordezkariak adi ibiliko dira taldeko, banakako eta tabernen mozorro onenak erabakitzeko. Azpeitiko Udalak esfortzu berezia egin du aurten festa berdin mantendu eta sariak ez kentzeko. Berrikuntza bezala, mozorro lehiaketako sari banaketa Sanagustin kulturgunean egingo da.

Mozorro eleganteak

azpeitiko Txikiteo Elegante eguna Maritxu Kajoi festetatik datorren arren, herriko egunik nabarmenetakoa bilakatu da, non herritarrak ez ezik, kanpotar ugari hurbiltzen den egunaz gozatzeraz. Orain 32 urte inguru sortu zen, koadrila gazte batek Udalari eskaera egin ondoren.

Igande inauteriko oinarritzko ekitaldi bezala, artzain eta inudeen eta dotore jantzitako herritarren kalejira aurkitzen dugu. Olatz Aranguren aspalditik irteten da Itsasi dantza taldeak antolatzen duen ekimenean. Bere neba dantza taldekoa zen eta jendea behar zutenez, parte hartzeraz animatu zen orain 25 urte inguru: "Eta oraindik jarraitzen dut. Egia da urte batzuetan jende gehiago edo gutxiago irteten dela, baina erakartzen duen eguna da", dio Aranguren.

Gaztetan hasi zen, lagun-artean, eta ondoren, familia osatu zuenean, haur eta guzti hartzen zuen parte: "Umeena da zailena. Tailaz aldatzen joaten dira eta arropak lortzea zaila izaten da baina nik zortea izan dut, beti lagundu izan baitadate", eskertu nahi izan du.

Aurten ere ez du hutsik egingo eta herritarrak festan parte hartzeraz animatzen ditu: "Herriko ikuskizuna da, zerbait desberdina eta ikusgarria, eta ez du denbora asko kentzen. Hori ez da lana, benetako lana Itsasik taldeak egiten duena da urtez urte horrenbeste haur antolatzea eta festa mantentzea!".



Olatz Aranguren

"Herriko ikuskizuna da, zerbait desberdina eta ikusgarria"



Goizetik gauera arte

elegante jantzia etxean utzi eta mozorroen txanda iritsiko da. Haur eta gaztetxoek Alde Zaharreko kaleak hartuko dituzte astelehen eguerdian eta iluntzean, berriz, helduek. Hala ere, badira goizean goiz hasi eta egun guztian zehar kalean ibiliko direnak mozorrotuta.

Horietako bat Itziar Aldalur da. Betidanik izan da inauteri zalea, baina lehenbiziko haurra izan ondoren ezin zuen festaz nahi adina gozatu eta egoerari itzulita emateko, lagun talde bat bildu eta mozorrotuta irtetea erabaki zuen. "Askok gustatu izan zaizkit inauteriak, horregatik, orain sei urte mozorroa prestatu ondoren, umeen desfilean atera ginen", agertu du.

Urtez urte mozorroa aldatzen joan dira baina ez umorez. Izan ere, nahiz eta haur txikiekin izan, goizean hasi eta gauera arte ibiltzen dira: "eguerdian irteten gara eta kalean bazkaltzen dugu. Ez zaigu eguna luzea egiten, giroa jarritz gero ez da luzea egiten. Egia esan, ondo organizatuz gero, egun polita izaten da".

Iluntzean mozorrotuta kaleratzen diren herritarrek sariak lortzeko aukera izango dute. Aurten, ordea, irabazleak ez dira udaletxeko balkoian izango, izan ere, sari banaketa Sanagustin kulturgunean egingo baita. Banakako, taldeko eta tabernarien sariak emango ditu Udalak eta parrandarekin jarraitzeko, txaranga festa izango da herriko kaleetan zehar.



Itziar Aldalur

"Egia esan, ondo organizatuz gero, egun polita izaten da"



Egitaraua



otsailak 11, larunbata KALDEREROAK

19:30ean Kaldereroen konpartsa Arana kaletik hasita

23:00etan Azpeitiko Tabernariak antolatuta **KONTZERTUA MENDEZ TALDEA** Sanagustin kulturgunean

otsailak 12, igandea

13:00ean **UDAL MUSIKA BANDAK eta JULIAN BARRENETXEA ABESBATZAK** Inauterietako kantuen emanaldia eskainiko dute, eta argazki elkartekoek inauteriko argazkiak erakutsiko dituzte Sanagustin kulturgunean

otsailak 17, ostirala

18:30ean **"EUSKAL INAUTERIEN JAIALDIA"** Azpeitiko Ikastola Ikasberri

otsailak 18, larunbata

ESKUZKO PILOTA, ERREMONTEA, eta ZESTA PUNTA

- Antolatzailea: Ilunpe pilota elkarte
- Tokia: Izarraitz frontoia.
- Ordua: 22:00etan

22:30ean Musika Bandaren eskutik **DANTZALDIA** Sanagustin kulturgunean

otsailak 19, igandea ELEGANTEEN PASIERA

9:00etan Izarraitz Txistulari Taldearen **DIANA**

11:00etan **DIANA** Udal Musika Banda eta Biasteriko dultzaineroen eskutik

12:00etan **XXXIII. SOKAMUTURRA ARGAZKI LEHIAKETA "IMANOL ELIAS" SARIA**

12:30ean **ELEGANTEEN PASIERA eta SOKAMUTURRA**

ITSASI taldearen eskutik ARTZAIN-IÑUDEAK danbor-joleekin eta aurtengo sansebastianetako karroza ikusgarriarekin

JUAN DE ANTXIETA MUSIKA ESKOLA

13:00etan **SKANDALUE TXARANGA**

16:15ean Zezenaren irteera girotzeko, Izarraitz txistulari taldeak, Udal Musika Bandak eta Biasteriko dultzaineroek hainbat doinu joko dituzte

16:30ean **SOKAMUTURRA**

19:30ean **FUNKY A L'OLLA talde ZANKODUNAREN** emanaldia

otsailak 20, astelehena

10:00etan **Goiz-eresia IZARRAITZ Txistulari taldeak**

11:30ean **SOKAKO ZEZENA** erdi kallean eta **ZEZEN TXIKIAK eta PONIAK** Plaza Nagusian

12:30ean Mozorrotutako haurren desfilea, erraldoi, buruhandi, herriko banda gazte, txilibitero eta Musika Eskolako trikitilarien laguntzarekin

16:00etan Umeentzako **JOLASAK eta PARKEA** Olazko Andre Mariaren Plazan

16:15ean Zezenaren irteera girotzeko, Izarraitz txistulari taldeak eta Udal Musika Bandak hainbat doinu joko dituzte

16:30ean **SOKAMUTURRA**

19:30ean Udal Musika Bandaren Kalejira

19:30etatik 23:00etara **GAUERDITXARANGA, UROLATARRAK TXARANGA eta TURUTARRA FANFARREA**

23:00etan Itsasi taldeko **TTUNTU-RROAK**

Helduen Mozorro lehiaketa **LOS PASAI TXARANGA eta ROCK-BOX TALDEA**

1:30ean Mozorro lehiaketaren sari banaketa Sanagustin kulturgunean
Banakakoak 1. saria: 200 euro
2. saria: 150 euro
3. saria: bi afari

Taldekoak 1. saria: 800 euro
2. saria: 700 euro
3. saria: 500 euro
4. saria: afariak

Inauteri giro onena duen tabernari: **SARI BEREZIA** bi afari

Jarraian, Sanagustin kulturgunean **DJ emanaldia**

otsailak 21, asteartea

2:00etan **ROCKBOX TALDEA eta LOS PASAIren** emanaldi bikainak

6:15ean Musika Bandaren eskutik **GOIZ-ERESIA**

6:45ean Zezenaren irteera Izarraitz Txistulari taldeak eta Udal Musika Bandak girotuta.

7:00etan **SOKAMUTURRA**

12:00etan Herriko Banda Gaztearen kalejira

16:00etan Umeentzako **JOLASAK eta PARKEA** Olazko Andre Mariaren Plazan

16:15ean Zezenaren irteera Izarraitz txistulari taldeak, herriko banda gazteak eta Julian Barrenetxea Abesbatzakoek girotuta

16:30ean **SOKAMUTURRA**

20:00etan 2012KO **INAUTERIETAKO AMAIERA** emateko, **SUZKO ZEZEN**a plazan.

AZPEITIKO INAUTERIAK 2012



ONDO PASATU!